

# GLOBO MAGIKOAK

## 1.- Deskribapena

Globoak lehertzean datza, lankidetzan bultzatzeko.

## 2.- Helburuak

- Lankidetzan-jolasa bultzatzea.
- Taldeko kide guztien partaidetza baloratzea.

## 3.- Partaideak

7 urtetik aurrera.

## 4.- Materiala

Globoak, papera, lapitzak, musika.

## 5.- Garapena

Paper zati batean haur bakoitzarentzako "sekretu" bat idatziko dugu; papera tolestu, globo baten barruan sartu eta globoa puztuko dugu. "Sekretuak" lankidetzan-jolasa bultzatzen duten aginduak dira (adibidez: "Denen artean elefante bat osatu"; "zure gauza berbera gosaltzen duen lagun bat bilatu eta hari eskua eman"). Haurrak txikiak badira, "sekretu idatzien" ordez globoan animalia baten marrazkia sartuko da, eta haurrak binaka edo denak batera animalia hori imitatzen saiatuko dira. Haurrak lurrean eseriko dira zirkulu bat osatuz, eta globoa elkarri pasatuko diote. Musika geratzen denean, globoa eskuetan duen pertsona globoaren gainean eseriko da eta lehertu egingo du. Orduan, sekretua irakurriko du, eta gainerako taldekideek aginduak beteko dituzte. Azkeneko globoan, "mahaira joan, askari berezi bat zain duzue eta" mezua azalduko da.

## 6.- Ebaluazioa

Taldekide guztiek parte hartu al dute jolasean? Nola sentitu zarete? Jostagarria izan al da? "Sekretuek" ziotena egitea zaila izan al da?

## 7.- Iturria

Orlick, Terry. *Libres para cooperar, libres para crear*. Paidotribo.